


Enplegu webguneko gida

Izena ematea

Gida honek gure lan-poltsan izena ematen lagunduko dizu.

Nabigazioan, eremu batzuk urdinez agertuko dira, eta horrek esan nahi du horien gainean klik egin daitekeela.

 Sinboloak sartutako datua balioztatzeko balio du.  Sinboloak datua ezabatzeko balio du.



Gure lan-poltsan izena emateko, hasteko, egin klik **ALTA EMAN**-en gainean.

Hurrengo aldietan, gure **erabiltzaile-izena** eta **pasahitza** erabiliko ditugu sartzeko.

Izartxo gorri batekin  markatuta dauden eremuak derrigor bete behar dira.

Alta Persona

Persona usuaria * Introducir DNI/NIE completo

Contraseña * Solo números y letras. Mínimo 6, máximo 10

Datos Personales

Nombre *

Apellido 1 *

Apellido 2

Sexo *

Discapacidad NO

País Nacionalidad *

Fecha nacimiento * dd-mm-aaaa

Grado % Porcentaje

Dirección y Contacto

Dirección *

Provincia *

Código Postal - Municipio *

Teléfono ?

Móvil ?

E Mail ?

Empleo

Situación laboral *

Disponibilidad *

LANBIDE

Fecha Ins. LANBIDE dd-mm-aaaa

Prestación por desempleo * NO

Fecha Inicio Prestación dd-mm-aaaa

Fecha Fin Prestación dd-mm-aaaa

R.G.I. NO Renta de Garantía de Ingresos

Nivel de formación

Nivel de formación *


Lehenik eta behin, gure erabiltzaile-izena sartu behar dugu; hau da, NAN zenbakia hizkiarekin eta pasahitz bat.

Geziaren sinboloarekin, dauden aukerak ikus ditzakegu.

Ezinbestekoa da harremanetarako modu bat ematea gutxienez: **telefono finkoa, sakelako telefona edo helbide elektronikoa.**

Prestakuntza-maila araututako prestakuntzarekin dago lotuta, eta bertan agertzen zaizkigu hauta ditzakegun aukerak (ESKOLA-ZIURTAGIRIA, DBH, ERDI MAILAKO GRADUA, DIPLOMATURA, LIZENTZIA...).

Zirkulazio-baimena izanez gero, alde batetik, **Gidabaimena** laukitxoa markatu behar duzu, eta, beste alde batetik, **Txartel-mota** zehaztu beharko duzu.



The screenshot shows a form with the following sections and fields:

- Gidabaimena**: A checkbox labeled "Gidabaimena".
- Gidabaimena mota**: A section containing checkboxes for "Ziklomotora", "Gidabaimena C", "Gidabaimena A", "Gidabaimena D", "Gidabaimena B", and "Gidabaimena E".
- Gidabaimena berezirik**: A dropdown menu labeled "Gidabaimena berezirik".
- Ibilgailua**: A section containing checkboxes for "Autoa", "Furgoneta", "Motorra", and "Kamioia".
- Disclaimer**: A checkbox followed by the text "Inprimaki hau bidaltzean baieztatzen duzu irakurri eta onartu egiten duzula gure [Pribatutasun politika](#) eta [Erabilera baldintzak](#)".
- Buttons**: "Bidali" and "Irten" buttons.

Pink arrows point to the "Gidabaimena" checkbox, the "Gidabaimena mota" section, the "Gidabaimena berezirik" dropdown, and the disclaimer checkbox.

Datuak emateko hasierako pausoa amaitzeko, onar ezazu Pribatutasun Politika.

Gogoratu ematen duzun informazio guztia legez babestuta dagoela eta aldatu eta eguneratu egin ahalko duzula, baita baja eman ere, hala badagokio.

Azkenik, egin klik **BIDALI** botoian, datuak gordetzeko.

Menurako sarbidea

Behin datu pertsonalak beteta, zure menura sartu ahal izango zara.

Hainbat ataletan dago banatuta: zure curriculumeko datuak; CVa inprimatu, behar duzunean erabiltzeko; enplegu bila ari zarela egiaztatzen duen ziurtagiria eskatu; pasahitza aldatu; eta eman izena gehien interesatzen zaizkizun eskaintzetan.

Datu honek adierazten du zure CVa zenbateraino dagoen beteta.

Gogoratu: zenbat eta informazio gehiago gehitu zure curriculumera, orduan eta aukera handiagoa izango duzu enpresek hautagaitzat har zaitzaten.

Gaitasunetan oinarritutako Curriculum Osatuta: 85%		Zerbitzuak	
	<p>Datu pertsonalak</p> <p>Bete zure historia osoa, prestakuntza, esperientzia...</p>	<p>Azken konexioa: 2017-10-30</p> <p>Sartu</p>	<p></p> <p>Lan-eskaintzak (58)</p> <p>Eman izena interesatzen zaizkizun eta zure profilarekin bat datozen eskaintzetan.</p> <p>Sartu</p>
	<p>Kompetenziak-Testa</p> <p>Ezagutu zure indarguneak eta erabili lanerako elkarriketetan.</p>	<p>Eginda: 2014-11-17</p> <p>Ikusi</p>	<p></p> <p>Nire hautagaitzak (2)</p> <p>Zure izena emandako eskaintzetan berrikusketa egin.</p> <p>Ikusi</p>
	<p>Bideo-CV</p> <p>Bideo-CVarekin ikusgai egiten duzu zeure burua enpresa garrantzitsuenen aurrean.</p>	<p>Egin</p>	<p></p> <p>Pribatasuna</p> <p>Pasahitza aldatu</p> <p>Jarduera ziurtagiria</p>


Elementu bakoitzak zure CVari dagokion atalera sartzeko aukera ematen du.

!
Ez ahaztu: adierazi lanerako zure lehentasunak eta igo zure argazkia.



Datuak gehitu

Zure CVra datuak gehitzeko, hainbat **erlaitz** erabil ditzakezu.

Prestakuntza, Ezagutzak, Esperientzia eta **Lanbideak** eremuetan jarraitu behar diren pausoak:




Jarraitu behar diren pausoak:

- 1 Datu bat gehitzeko, egin klik **BERRIA** laukian.
- 2 Nahi duzun informazioa bilatzeko, sakatu **BILAKETA** botoia.
- 3 Datua balioztatzeko, egin klik botoian .
- 4 Datua ezabatu behar baduzu, egin klik botoian .

! Data, ordua eta eskatzen den informazio guztia adierazi behar duzu, ez ahaztu.

Ezagutza gehiago zehaztu

Ezagutzak atalean, zure gaitasunak eta trebetasunak zein diren adierazteko eremu bat duzu. Beste edozein datu interesgarri ere azal dezakezu: bekak, boluntariotza...



Estancia de 3 meses en Irlanda

Gorde

Hizkuntzak

Idioma	Irakurri	Idatzi	Berba egin
Euskera	Goi-maila	Goi-maila	Goi-maila
Inglés	Goi-maila	Goi-maila	Goi-maila

Informatika



Informatika

.Net

Ez dago erregistrorik erakusteko


! No olvides que en caso de error, también puedes borrar el dato

Jarraitu zure CVari informazio gehiago gehitzen:

- **Hizkuntzak: BERRIA** botoia sakatuta, hauta ditzakezun ezagutzak agertuko zaizkizu. Hautatu dagokizuna, zure ezagutza-maila, eta **balioztatu** datua 
- **Informatika: BERRIA** botoia sakatuta, hauta ditzakezun ezagutzak agertuko zaizkizu. Hautatu dagokizuna eta **balioztatu** datua 

Zure argazkia


Zure argazkia ere CVaren alderdi oso garrantzitsua da. Argazkia CVan jartzeko, eman pauso hauek:



! Ez ahaztu argazkia eguneratu nahi baduzu aurrekoa ezabatu behar duzula, eta, gero, prozesu berari jarraitu behar diozu argazki berri bat jartzeko.

Argazki bat igotzeko, lehenik eta behin egin klik **FITXATEGIA HAUTATU** jartzen duen lekuan.

Jarraian, pantaila bat agertuko da eta hor eguneratutako argazki bat hautatu beharko duzu.



Behin argazkia hautatzen duzunean, **GORDE** botoia sakatu beharko duzu.


Eranskinak

Eranskinen atalean, gure CVa osatzeko baliaagarriak diren dokumentuak gehituko ditugu.

Dokumentu horiek gehitzeko, **FITXATEGIA HAUTATU** botoia sakatu behar dugu.

Ondoren, leiho bat agertuko da, eta horren bitartez gehituko dugu fitxategia.

Jarraian, izena jarri behar diogu fitxategiari.



! Ez ahaztu: fitxategi bakarra igo dezakezu dagoen eranskin bakoitzeko. Gehienez ere, 5 eranskin gehitu daitezke.



Behin fitxategia hautatzen dugunean, **GORDE** botoia sakatuko dugu.

Testu bat idazteko lekua ere baduzu, CVa osatzen amaitze aldera nahi adina idazteko.

Eranskinak ezabatu nahi izanez gero, **ERANSKINAK EZABATU** botoia sakatuko dugu eta ezabatu nahi ditugun eranskinak hautatu.

Gaitasun test-a

Test horren bitartez, zure gaitasun pertsonal zein profesionali buruzko informazioa eman ahalko diezu enpresei, eta, hala, balio gehigarri bat emango diozu zure curriculumari.

	<p>Datu pertsonalak</p> <p>Bete zure historia osoa, prestakuntza, esperientzia...</p> <p>Azken konexioa: 2017-10-30</p> <p>Sartu</p>
	<p>Kompetentziak-Testa</p> <p>Ezagutu zure indarguneak eta erabili lanerako elkarrizketetan.</p> <p>Egin</p>
	<p>Bideo-CV</p> <p>Bideo-CVarekin ikusgai egiten duzu zure burua enpresa garrantzitsuenen aurrean.</p> <p>Egin</p>



Test hori egiteko, **EGIN** botoian klik egin besterik ez duzu egin behar.

Bideo-Curriculum

Bideo-curriculuma da beste aukeretako bat. Horretarako, **EGIN** botoia sakatu behar duzu.

	<p>Datu pertsonalak</p> <p>Bete zure historia osoa, prestakuntza, esperientzia...</p>	<p>Azken konexioa: 2017-10-30</p> <p>Sartu</p>
	<p>Kompetentziak-Testa</p> <p>Eragutu zure indarguneak eta erabili lanerako elkarrizketetan.</p>	<p>Egin</p>
	<p>Bideo-CV</p> <p>Bideo-CVarekin ikusgai egiten duzu zure burua enpresa garrantzitsuenen aurrean.</p>	<p>Egin</p>

Jarraian, pantaila bat agertuko zaizu, hitzordua eska dezazun eta bideoa egiten lagun zaitzagun.



Lan eskaintzetan izena ematea

Lan eskaintzetan izena emateko: **SARTU** botoia sakatu



The screenshot shows three sections of a user interface:


- Section 1:** Icon of a pushpin. Title: "Lan-eskaintzak (58)". Subtitle: "Eman izena interesatzen zaizkizun eta zure profilarekin bat datozen eskaintzetan." Date: "Eguneratua: 2017-10-30". Button: "Sartu".
- Section 2:** Icon of a checkmark. Title: "Nire hautagaitzak (2)". Subtitle: "Zure izena emandako eskaintzetan berrikusketa egin." Date: "Eguneratua: 2017-04-28". Button: "Ikusi".
- Section 3:** Icon of a padlock. Title: "Pribatutasuna". Subtitle: "Pasahitza aldatu" and "Jarduera ziurtagiria".

!
Bideo-curriculumaren bidez, enpresek zaren bezala ikusten zaituzte, eta zuzenean sartzen zara gure lurraldeko enpresa garrantzitsuenetako langileen arduradunen leihora.

Gure web orriaren bidez lan-eskaintza guztiak ikus ditzakezu.
Gainera Wathssapp, SMS o emailen bidez mesuak jaso ditzakezu.

Jarraian, lan-eskaintzen zerranda agertuko da.

Profila ikusteko: **Informazio gehiago** botoia sakatu.



The screenshot shows a job profile page with two sections:

- Section 1:** "ZAMUDIO". Reference: "Erreferentzia: 307". Description: "Proiektu turistikoan, hezitzaileen, kulturalen eta kirolaren gestio orokorraz arduratzen den enpresa batek Zamudiorako behar du: **BEGIRALEAK**". Button: "Informazio gehiago".
- Section 2:** "SONDIKA". Reference: "Erreferentzia: 199". Description: "Tokiko garapenerako agentzia bat, behar da, **AUKERA-BERDINASUNERAKO AGENTE BAT**".

Profila zure interesekoa bada eta baldintzak betetzen badituzu, sakatu: **IZENA EMAN**

Zure lan-eskaintzetako kontrola eraman dezazun, **IKUSI** botoia sakatu.

Eskaintzetan izena eman eta gero, mesu hau agertuko zaizu:

Zure eskaera eskaintza honetan gehitu da



Enplegu webguneko gida

www.txorierri.eu